

**NIRE FILOSOFIA LEHENAREN ZIMENTUAK**

1.- Desordenatua baina argiro hasi zen nire filosofia eraikitzen zimentarri baten gainean. Evangelio canonigoak ziren harri hura. Batek pensa dezake ezen eraiki ere eraiki nuena izan dela nire teologia, baina ni ez naiz teologoa, eta ez nabil docto horien bideetatik, nik nire filosofia eraikitzen hasi nintzen ari-keta espiritual haietan, non zerbait sobrenaturala ageri zen taktion eta potian Jesusen egintzetan.

Eta absurdora reduzitzen ahal dira teologo moderno batzuen hizpide doctoak. Atzo bertan egon nintzen halako baten hitzaldian, berpizteaz. Eta batek galdetu zion zer zen santo Tomasena (ver y creer esaten omen da santu horren gainean), eta teologo doctoak arrapostu zion hura izan zela testimonio simbolicoa, helburu pedagogicoa omen zuena, hau da, jarraituz harenakin, coordenada espacio temporal guztietatik at gertatu zela, erran nahi baita, ahistoricoa izan zela testimonio hura. Historiatik at gertatu zela testimonio historico harek zioena?. Bide horretatik ni galdu egiten naiz, eta badakizue zer dioten escriturak galtzeaz?.

Gainera, espacio demboratik at egoteko behar diren abiadurak itzelak dira, fisica modernoak dio halako abiaduretan desintegratu egiten garela, eta nik, egia esan, ez dut uste Jesus desintegratu zenik inoiz. Eta gu ere, hiltzean, ez gara desintegratzen, hauts bihurtzen bagara ere, eta berpiztean, desintegratuak baino integratuak gara.

Origenes ere aipatu zuen gure teologoak, eta Origenes harek esan omen zuen ezen bat dagoen bitartean infernua Jesus gurutzefikatua dagoela, nonbait Jesus Bere gurutzetik bajatzeko denok salvatuak behar garela izan. Eta nik gogoratu nuen nire artean Fatiman Ama Birginak artzaintsu haiei esan ziena, hau da, Jesusek sufritu egiten zuela condenatu egiten zirelako asko (ez zuen esan zeintzuk ziren, seinale doctrina catolicoa ez dela dantescoa). Ama Birginak hor Elizaren betiko doctrina baieztatzen zuen, eta agerian ere lagatzen zuen ezen Jainkoaren egiazko asmoa dela denon salvacioa, baina justua ere badela, sufritzen duen arren horregatik. Eta nik daukat ezen justo izateari laga gabe errukitsua dela denen buru, eta hori diote escriturak.

Teologo harek esan zuen infernua estrenatu gabe dagoela, baldin eta infernurik badago. Credoak dio ez infernua, infernuak dio.

Gero hor aipatu ere zuen testimonio historico horietan genero literario asko zeudela, hainbeste, pensatzen dut nik, ezen historicotik ia ia dena galtzen dute. Eta, errepikatzen dut, nire filosofia testimonio historico horietan zimentatzen da aspecturik importanteenetan. Revelacioaren historia cosmos (mundua grekeraz) honetan gertatutako historia da, baina zerbait sobrenatural gertatzen bada, hasten bagara hori ahistorikoa dela esaten eta afirmatzen, orduan revelacioa zertan bilakatzen da?. Ez da Jesusek egindako signo bat fenomeno historikoa?. Ez da hitz egiten revelacioaren historiaz?. Historia Sakratuaz?. Zertara datoz fisica modernotik ateratako teoria horiek koordinada espacio temporalaz?, ahistorikoa da revelacioa?. Eta hola.

2.- Nik nire filosofia oinarritzen dut cosmos material honetan gertatutakoekin, eta nire curiosidadeak ez du salbuespenik ezagutzen, dena abarcatu nahi dut, historia osoa, eta ahalik eta gehien ezagutu, eta zenbat eta gehiago informatua egon gero nire ondorioak hobeak izango direlakoan nago. Eta nire filosofia, talentua badut, jakina, gero eta calidade handiagokoa izango da.

3.- Ondo definitu nahi dut oro, definicioan dagoelako ciencia ororen hastea. Baina ohartzen naiz cosmos hau actividadea dela, eta definicio universalala escapatu egiten zait beti. Conformatu behar naiz unean uneko definicio actualizatuekin, eta zimentarri horren gainean estudiantu unean uneko ciencia humanoa, zenbateraino iritsia den, lortu ahal duen bere helburu maximoa, hau da, ezagutza universalala, ala, ostera, etsita dago Kantek demostratu zuenean ezen ezagutza universalala, helburu maximo hori, esperiencia material orotik campo dagoenez lortu ezinezkoa dela cosmos material honetan. Eta arrazoi garbia bezala ezagutzen dugun ezagutza universal hori teorizatua dugu filosofia teori-coan, baina esistitzen ez denez, dirudienez, ezinezkoak dira juicio sinteticoak a priori cosmos material honetan.

4.- Baina zer dira juicio sinteticoak a priori horiek?. Zer definitzen dute?. Nik ezagutu dudan teologo harek dio ezen revelacioa ahistorikoa dela. Joera dute subestimatzekoa Jesusek egindako signoak, adibidez. Baina ni iritsi naiz ondorio honetara, hain zuzen ere, signo baten definiciorik hoberena, gaur egungo momentuan, da direla juicio sinteticoak a priori. Nola ez naiz altxatuko sasi teologo guzti horien aurka?. Hortik, teologian sartu barik, soilik filosofia jorratuz, ateratzen ahal diren ondorioak itzelak dira, alde batetik simpleak, ume batek comprenitzeko modukoak, eta beste aldetik suposatzen dute iraultza bat filosofiaren historian Kant ateoaren demboretatik hona. Zeren Kant itsuarekin ez baitzen ezer novedosorik hasi, ilunpeetako tradicio berri bat acaso, hori bai teorizacio argitsu batekin buruan, baina descubrituz gero juicio sintetico a priori bat dela signo baten definicioa filosofiaren historia zeharo argitu egiten da, zabor ugari iluminatuz. Eta egiaren alde direnak Jesusen jarraitzaile egiten dira.

5.- Gero nik ere badut beste definicio bat egin dakidan logica apur horrekin, eta diot ezen signo mota bat dela induccio perfectua. Horrek esan nahi du, terminologia logicoan, ezen fenomeno material bat estudiantzerakoan cuantificadore univer-

sala sartzea lortzen dugula, guk humanook, osoro ere, eta ondorioz, ezagutzen dugu fenomeno horren gorabehera perfectoa. Baina jakina da ezinezkoa dela materiazkoa dela estudiantua cuantificadore universalala sartzea (estudiatutako objektuak geldiak behar baitira horretarako, nola triangeluan), eta horregatik hasiera inductivoa duen fenomeno baten cienciak ezin du bere helburu maximoa lortu, eta induccioak oro imperfectuak dira gurean, humano estudianteotan. Eta cosmos material honen ezagutza universalala escapatu egiten zaigu, potencian beti aurreraterik badugun arren. Beraz induccio perfectu batek erakusten duena da ezen ciencia humanao potencian infinituraino ere heltzen ahal dela, baina infinitua potencian imperfectoa da beti, beti dago une hoberik; alderantziz, induccio perfectua egiten ahal duenak erakusten du bere baitan baduela ezagutza universalala eta beraz, comparacioarekin jarraituz, da nola infinitua actoan. Adibidez, nik estudiantu dut sutan zegoen eta aldi berean consumitzen ez zen sasi haren casua (Moisesen historian), eta izan daiteke induccio perfectu baten moduan ezagutua, definitua, zeren guk halakorik egiteko beharko bailitzateke tecnologia bat descomunala, eta hala ere nik ez dakit lortuko litzatekeenik (agian cienciaren anaia den magia piska bat eginez), eta gero den Haren ahotsa su hartatik Moisesi zuzendua... ez da comprenitzen, misterioa da, baina misterio izateak ez dakar ezin estudiantu daitekeela signo bat, ezin definitu daitekeela signo bat, gertatu oro da estudiagarria, eta definituz gero, operatu horrekin, logican esaten den moduan, eta ondorioak atera, jakina. Eta ondorioetako bat da ezen cienciaren helburu maximoa ezinezkoa dela guretzat baina ageri dela, oso argiro, signoetan, eta oro har hartuta, revelacioaren historian gertatu fenomeno sobrenaturaletan.

6.- Eta sasi teologoak agertzen bazaizkit esaten, ilustratu atoei segika, revelacioko fenomeno sobrenaturalak aintzat hartzekoak ez direla, zerekin geratzen naiz jarraitzen badiet?, bada cosmos honen historia natural batekin, historia material

huts batekin gorroto diona gertatu den fenomeno sobrenatural orori, gorroto diona revelacioaren historiari, nahinon eta non-nahi, eta galdua nago ezinbestez esperanzarik gabe, científico materialisten modura azkenean geratzen naizelarik gau ilunean argirik ematen ez duen faro bati begira. Galduta.

7.- Revelacioaren historia da, beraz, Testamentu Zaharra, Testamentu Berria eta Elizaren Historia, revelacioaren historia da nire filosofia lehenaren eta nire filosofia osoaren zimentua (revelacioa lagunduta datorrena signoekin oro har definituak, eta signo horien definicioak dira nire filosofiaren zimentu lehenak, importanteenak), eta revelacioa “criticatu” bada (criticismo asko dago, ez dakit baina ez ote den hobe criticista izatea baino egiaren aldekoa izatea), revelacioa criticatu bada orduan nire filosofiaren zimentuak ere criticatuak dira, eta hortik ere, nire lana baita nire filosofia, ni altxatu egiten naiz critico horien contra. Agian, esaten diet, gehiago gustatu zaie criticismoa egia bera baino. Eta egia esijentea dela burua duen inork ez dit ukatuko, ateo zentzudunak ere onartzen du hori..

8.- Benedicto XVI aita santuak azpimarratzen omen du bera ez dela mistico bat, gehiago dela profesorea, eta hortik, arrazonatzen, irabazi nahi ditu jendeak. Ni, nire miserietatik, banabil bide hortatik, arrazonatzen nire fedea, eta eman zaidan talentutxu hori ez dut nahi lurpean gordetzerik (vistan dago), eta proposatu egingo nioke nire filosofia aztertzea, ea zerbait interesanterik elkarrekin dugun proposito amancomunerako aurkitzen duen. Nire ahalgina zen hasieran euskaraz nire filosofia garatzea, baina nire filosofiak, arrazonatzen ahalik eta ondoen nire neurriaren barruan, hartu duen bideak aita santuaren propositoetarako balio dezake, diot nik nire bakardadeetan, eta ez dut uste, hala bada, dauden trabak gainditu ezinak direnik, izan ere, oso simplea da nire filosofiaren lehen zimentua eta aldi berean calado handikoa. Eta hola espresatzen naiz seguru nagoelako asmatu dudala zerbait importantean.